

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko iraila

Euskal AEko hotel-establezimenduetan ostatu-gauak 2023ko irailean 2022an baino % 12,7 gehiago izan dira

Udako hiru hiletan, atzeritar jatorriko sarrerak % 13,6 igo dira 2022ko udaren aldean, eta ostatu-gauak % 16,8

2023ko irailean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 10,9 igo dira, eta ostatu-gauak % 12,7, urtetik urterako balioetan, Eustaten datuen arabera. Erregistratutako 366.217 sarrerek guztira 733.225 ostatu-gau ekarri dituzte.

Sarreraren % 54,4 eta ostatu-gauen % 55,1 atzeritarrenak izan dira; izan ere, sarrerak % 21,6 igo dira, eta ostatu-gauak % 23,9.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Iraila 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/09	m/m-12 (%)	2023/09	m/m-12 (%)	2023/09	2022/09
EUSKAL AE	366.217	10,9	733.225	12,7	2,00	1,97
Estatukoak	167.134	0,3	329.007	1,4	1,97	1,95
Atzeritarrek	199.083	21,6	404.218	23,9	2,03	1,99
Araba/Álava	48.559	12,5	99.784	27,6	2,05	1,81
Estatukoak	30.998	13,2	64.054	25,2	2,07	1,87
Atzeritarrek	17.561	11,3	35.730	32,2	2,03	1,71
Vitoria-Gasteiz	35.199	16,7	76.273	32,3	2,17	1,91
Bizkaia	170.160	12,0	327.446	10,6	1,92	1,95
Estatukoak	74.805	-3,0	137.999	-6,8	1,84	1,92
Atzeritarrek	95.355	27,4	189.447	28,0	1,99	1,98
Bilbao	110.176	5,8	222.713	10,9	2,02	1,93
Gipuzkoa	147.498	9,1	305.995	10,7	2,07	2,05
Estatukoak	61.331	-1,2	126.954	1,4	2,07	2,02
Atzeritarrek	86.167	17,9	179.041	18,4	2,08	2,07
Donostia / San Sebastian	90.199	10,1	198.808	10,9	2,20	2,19

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 48.559 sarrera eta 99.784 ostatu-gau erregistratu dira, hau da, joan den urteko irailean baino % 12,5 eta % 27,6 gehiago. Bizkaian, sarrerak % 12,0 gehitu dira, eta ostatu-gauak % 10,6; guztira 170.160 sarrera eta 327.446 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 147.498 sarrera erregistratu dira 2023ko irailean, 2022ko irailean baino % 9,1 gehiago, eta 305.995 ostatu-gau, joan den urteko hil berean baino % 10,7 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopurua % 16,7 igo da Gasteizen, % 10,1 Donostian eta % 5,8 Bilbon. Era berean, joan den urteko irailaren aldean, ostatu-gauak % 32,3 hazi dira Gasteizen, eta % 10,9 Donostian eta Bilbon.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,0 egunekoa izan da 2023ko irailean, joan den urteko hil berean baino luzeagoa, orduan 1,97 egunekoa izan baitzen. Batez besteko egonaldiak adierazten du zenbat egun ematen dituzten bidaiariek batez beste gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean, eta ez Euskal AEn guztira zenbat egun ematen dituzten.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Iraila 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/09	p.p. *	2023/09	p.p. *	2023/09	m/m-12 (%)	2023/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	69,0	5,0	82,9	6,2	129,81	11,3	107,55	20,3
Araba/Álava	64,8	8,8	81,2	10,4	94,04	4,0	76,39	19,3
Vitoria-Gasteiz	64,3	9,0	84,2	10,7	73,36	4,4	61,78	19,6
Bizkaia	67,6	5,6	82,4	7,1	114,46	13,1	94,35	23,8
Bilbao	73,8	6,2	89,6	8,2	130,65	13,0	117,09	24,5
Gipuzkoa	72,3	2,9	83,9	3,7	159,06	12,2	133,46	17,3
Donostia / San Sebastian	77,9	1,6	89,6	2,3	199,83	11,7	179,08	14,6

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

Euskal AEko betetze-maila % 69,0 izan da irailean, plazaka neurtuta, eta % 82,9, gelaka neurtuta. 2022ko irailarekin alderatuta, igoerak ehuneko 5,0 eta 6,2 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEn, 129,81 euro izan da 2023ko irailean eguneko batez besteko tarifa edo ADRa ("logela bakarrik" erregimenean gela bikoitz bainugeladunari aplikatua), eta horrek esan nahi du % 11,3ko igoera izan dela joan den urteko irailaren aldean. ADRa 159,06 euro izan da Gipuzkoan, 114,46 euro Bizkaian eta 94,04 euro Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira: ADRa 199,83 euro izan da Donostian, 130,65 euro Bilbon eta 73,36 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela erabilgarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 107,55 eurokoak izan dira 2023ko irailean, joan den urteko hil berean baino % 20,3 gehiago.

2023ko udako balantzea

Udako hiru hiletan, gela betetze-maila % 84,1 izan da, 2022ko udakoa baino ehuneko 3,2 puntu gehiago.

Udako hiletan (2023ko uztaila, abuztua eta iraila), orotara, Euskal AEko hotel-establezimenduetan 1.171.886 sarrera erregistratu dira; guztira, 2.434.027 ostatu-gau izan dira, hau da, 2022ko aldi beraren aldean % 5,5 eta % 7,9 gehiago, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak, jatorriaren arabera. Uda(*). 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Okupazio-mailak			
							plazen arabera		gelaka	
	2023	2023/2022 %	2023	2023/2022 %	2023	2022	m	p.p.	m	p.p.
EUSKAL AE	1.171.886	5,5	2.434.027	7,9	2,08	2,03	74,1	2,5	84,1	3,2
Estatuko egoiliarak	548.828	-2,4	1.160.991	-0,4	2,12	2,07	-	-	-	-
Atzerriko egoiliarak	623.058	13,6	1.273.036	16,8	2,04	1,99	-	-	-	-
Araba/Álava	165.799	10,1	326.893	18,7	1,97	1,83	69,0	5,7	81,8	5,7
Estatuko egoiliarak	101.519	13,4	212.007	19,0	2,09	1,99	-	-	-	-
Atzerriko egoiliarak	64.280	5,1	114.886	18,0	1,79	1,59	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	123.915	14,1	252.239	24,0	2,04	1,87	74,0	10,7	87,3	8,2
Bizkaia	539.268	4,9	1.084.650	6,2	2,01	1,99	72,2	2,9	82,7	4,0
Estatuko egoiliarak	252.417	-6,9	511.897	-6,3	2,03	2,02	-	-	-	-
Atzerriko egoiliarak	286.851	18,2	572.753	20,7	2,00	1,95	-	-	-	-
Bilbao	355.787	3,2	723.701	6,7	2,03	1,97	73,8	-7,3	89,6	4,0
Gipuzkoa	466.819	4,5	1.022.484	6,6	2,19	2,15	78,3	1,0	86,6	1,3
Estatuko egoiliarak	194.892	-3,5	437.087	-1,0	2,24	2,19	-	-	-	-
Atzerriko egoiliarak	271.927	11,2	585.397	13,0	2,15	2,12	-	-	-	-
Donostia / San Sebastian	282.099	7,3	649.611	8,0	2,30	2,29	84,2	-0,8	90,8	0,2

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi balokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzeritar jatorriko sarrerak % 13,6 igo dira 2022ko udaren aldean, eta ostatu-gauak % 16,8.

Araban, 326.893 gau igaro dituzte bidaiariek hiru hil horietan, hau da, joan den udan baino % 18,7 gehiago. Gipuzkoan, 1.022.484 gau igaro dituzte bidaiariek (% 6,6ko igoera), eta, Bizkaian, 1.084.650 gau (% 6,2ko gehikuntza).

2023ko udarako kalkulaturako batez besteko egonaldia 2,08 egunekoa izan da, joan den urteko udan baino luzeagoa, orduan 2,03 egunekoa izan baitzen.

Betetze-maila % 74,1era iritsi da Euskal AEko hotel-establezimenduetan, plazaka neurtuta, eta % 84,1era gelaka neurtuta. Beraz, ehuneko 2,5 eta 3,2 puntuko gehikuntzak izan dira.

2023ko udan lortutako zifrek ildo berari jarraitzen diote hiru lurraldeetan. Plazen betetze-mailan Gipuzkoa nabarmentzen da, % 78,3rekin; ondoren, Bizkaia % 72,2rekin eta, azkenik, Araba % 69,0rekin. Gelaka neurtuta, hiru lurraldeek % 80,0ko betetze-maila gaitzen dute: % 86,6 Gipuzkoan, % 82,7 Bizkaian eta % 81,8 Araban.

Hiriburuetan Donostia nabarmentzen da, % 84,2ko eta % 90,8ko betetze-mailarekin, plazaka eta gelaka neurtuta, hurrenez hurren. Bilbon, plazaka neurtuta, betetze-maila % 73,8 da, eta, gelaka neurtuta, % 89,6; Gasteizen, berriz, % 74,0 eta % 87,3, hurrenez hurren.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHaren erantzun-tasa % **90,0** izan da 2023ko irailean. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: <mailto:servicioprensa@eustat.eus> Tel.: 945 01 75 62